

«Ametsetan ikusi egiten dut»

Makila poltsan sartu eta katedraleko azkeneko ilarako bankuan eseri da. Kolpe baten hotsa entzun da. “Gizon bat erori egin da”, esan diogu. “Bai, ikusi dut”, esan digu.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Karlos Corbella

Artzain Onaren katedralean gaude. Nola deskribatuko zenuke gauden lekua?

Gurutze latindarreko oina duen eliza handi-handi batean gaude, hormak elkarrengandik oso urrun daude, eta sabaia oso goian...

Zerk esaten dizu ez gaudela eliza txiki batean?

Sentitu egiten dut, aireak esaten dit non dauden gauzak. Nik badakit noiz nagoen horma baten aurrean eta noiz zutabe baten aurrean. Airearen erresistentziak esaten dit. Horma baten aurrean banago, aireak esaten dit non dagoen pareta, erresistentzia egiten baitit. Leku libre batean, aldiz, airea libre mugitzen da. Ez haizea: airea. Eta soinuak non errebotatzen duen ere sentitzen dut: soinuari eta aireari esker dakit sabaia zer distantziara dagoen. Leku txiki batean banago, sabaia gertu baldin badaukat, ez dago airea mugitzeko lekurik. Airea bildu egiten da, eta horrek esaten dit aireak ez daukala mugitzeko lekurik. Sabai baxua duten eraikinetan soinuak askoz beherago errebotatzen du.

Ulertu ahal izateko, sentsazio hori askoz ere eskala handiagoan imajinatu behar dugu begietatik ikusten dugunok.


Bai, imajinatu itsasoaren aurrean zaudela. Dena sentitzen duzu, zure perspektiba oso handia da bai eskuinera, bai ezkerrera, bai aurrera eta ia atzeraino. Ia 360 gradu ditu zure perspektibak. Ba, nik perspektiba hori hemen, etxe batean edo kalean aurkitu dezaket. Esaterako, imajinatu: ni oihan batean nago. Gela horrek baditu zutabeak: zuhaitzak; badu sabaia: hostoak; eta adarrak ere baditu sabairantz, besoak balira bezala. Eta lurra hemen-go bano

Nortasun agiria

Ania Miner 1982ko urriaren 1ean jaio zen Donostian, eta bertan bizi da gaur egun ere. Jaiotzez itsua da, eta sei anai-arrebetan bosgarrena. Nafarroako Unibertsitatean aritu da zuzenbidea ikasten, eta UNEDen lizentziatuko da laster. Bidaia zalea da eta Turkian, Floridan, Greziako uharteetan, Londresen, Parisen, eta Irlandan izana da. Bizikletan eta zaldian ibiltzea, urpekaritza, eskiatzea, eta karabinarekin tiro egokitua egitea gustatzen zaizkio. Baina, batez ere, irakurlea da Ania, irakurle sutsua. Behin, birritan eta hamar aldiz irakurtzen ditu harrapatzen dituen liburuak. Ez da arkitektoa, baina zehaztasun osoz deskribatzen ditu katedralen tripak.

• PERTSONAIA •

Ania Miner



altuxeago dago, belarrarengatik. Gauza horien-
gatik guztiengatik nik badakit oihan horretan
zenbat zuhaitz dauden: badakit gela hori itxia
den, irekiagoa ala erabat irekia.

Donostian bizi zara. Oso hiri polita iza- tearen ospea du. Politia al da zuretzat?

Bai, oso. Haizeen Orrazia nire etxetik
oso gertu dago, baita Miramar Jaure-
gia ere. Asko gustatzen zait hor paseo-
an ibiltzea.

Itsuentzat zer moduz dago prestatuta?

Oztopo asko ditu. Adibidez, autobusetan
badaude ahozko GPSak, baina beti itzalita ego-
ten dira. Edo pentsa: kutzazain automatikoetan
nola atera dezaket nik dirua? Pantailak buruz
ikasi... edo akabo!

Oztopoak ez dira fisikoak bakarrik izango.

Ez, lagunak egitea, adibidez,
asko kostatzen zait, eta ez
da jendearen errua.
Gizartean integra-
tzeko aukerarik
ez badut,

“Norbere buruak, norbere
nerbioek, errealitatea era
batekoa edo bestekoa dela
esango diote bakoitzari”

nola egingo ditut lagunak? Lanik ez badut, bes-
teak doazen lekuetara joateko aukerarik ez
badut... Non egin harremanak? Gizartean inte-
gratzeko aukera izan dudak bakoitzean lagunak
egin ditut. Kanpoan integratu naiz eta kanpoan
ditut lagunak. Donostian Interneten,
musikan eta literaturan hartzen dut
babes.

Ken Follet-en *Pillars of the Earth* iraku- rri ostean piztu zitzaizun katedraleko interesa.

Bai, arkitekturak, bestela, ez du aparteko
interesik itsuentzat. Beno, ukitzeko aukera baldin
baduzu, bai; bestela, ez. Imajinarioarekin jokatu
behar duzu. Adibidez, niri bidaiatzea asko gusta-
tzen zait eta jendeak maiz esaten dit: “Baina zuri
zer axola dizu Donostian, New Yorken edo Lon-
dresen zauden? Ez duzu ezer ikusten!”. Baina ez
da hala: hiri bakoitzak, herri bakoitzak bere norta-
suna du, eta sentitu egiten dut. Dublinen, Temple
Bar-en bazaude, kaleak estuagoak direla iku-
siko duzu, musikari asko ikusiko ditu-
zu, bizitza handia... Hemen ere,
arratsaldeko 18:00etan Alde
Zaharrera joanez gero jendea
ikusiko duzu... Jendearen iza-
teko erak ere markatzen du
leku baten nortasuna.

Asko erabiltzen duzu “ikusit” aditza. Zuretzat gauza bera al dira “ikusit” eta “imajinatu”?

Ez. “Ikusi” nire zentzu-
men guztiekin suma-
tzen eta sentitzen
dudan guztia da, eta
“imajinatu”, suma-
tzen dudak horrek
ematen didan iru-
ditik neure irudi
propioa sortzea.



• Ania Miner

Ukituz gero arkitektura ikusi egin dezakezula esan duzu. Maketen bitartez ikusi al dituzue eraikin asko?

Bai, hori da. Baina Eiffel dorrera bazoaz ere lurra ukitu dezakezu, eskaile-rak, egitura... Maketek asko esan didate, baina eraikin batzuek ere informazio handia ematen dute. Beste eraikin askok, ordea, ez. Niri bost axola zait Madrilgo Picasso dorreak sabaian zulo bat izatea eta, han barrenean, hiria ikusteko begiratoki bat; bost axola polita ala zatarra den; arrosa, laranja ala berdea.

Zer dira koloreak zuretzat? Ezer ez.

Inork "jertse hau gorri da, eta beste hau beltza" esaten badu, zuretzat ez dago inolako desberdintasunik?

Ez, ezer ez. Txikitan kolore gorria sumatzera iritsi nintzela uste dut. Izebak, ispilu gorri bat hartu eta eguzki printzak harantz proiektatzen zituen. Orduan, ispiluaren gorritasuna areagotu egiten zen intentsitatez, eta hor sumatzen nuen zerbait. Baina ordutik ez dut kolorerik sumatu. Eguzkiaren argia bai, agian. Udan, igerilekuan, argiak begien kontra ematen badit, zerbait sumatzen dut. Ez dakit zer den, baina ni ere ezin naiz eguzkiari begira jarri.

Behin baino gehiagotan galdetu izan digute: "Zuk nola amesten duzu, koloretan ala zuri-bel-tzean?". Nola amesten duzu zuk?

Esna nagoenean errealitatea sumatzen dudana moduan amesten dut, berdin-berdin. Baina ametsetan ikusi egiten dut. Ez begiekin, nik ez baititut irudiak zuek bezala ikusten; baina nire irudi propioak sortzen ditut buruan. Esna nagoela buruan eraiki ditudan irudiak etortzen zaizkit ametsetan.

"Egixe da, neuk ikusi dodalako...". Inozoak errealitatea geuk ikusten dugun hori dela pentsatzen dugunok!

Errealitatea hor dago, eta bakoitzak bere erara hautematen du, bere erara ikusten du. Norbere buruak, norbere nerbioek, errealitatea era batekoa edo bestekoa dela esango diote bakoitzari.



Izaki bizidun guztiok ez dugu errealitatea berdin hautematen: txakurrek, saguzarrek, izurdeek... Ba, gizaki guztiok ere ez.

Hizkuntza da errealitatea hautemateko beste era bat. Hiruzpalau dakizkizu zuk, eta hizkuntzak mundua ikusteko betaurrekoak direla esan ohi da. Zenbat eta hitz gehiago jakin, gehiago ikusten dugu?

Bai, adibidez, eskimalek, inuitek 14 izen omen dauzkate elurra izendatzeko. Guretzat elurra, elurra da, baina beraiek elur-zopa, elur izoztua, elur erdi izoztua... bereizten dituzte. Izen horiek jakinez gero, guk ere bereiziko genituzke. Euskaldunok hitz mordoak dauzkagu tximeleta esateko, eta ez da gauza bera tximeleta bat, pinpilinpauza bat edo mitxoleta bat. Txingorra

eta kazkabarra ere ez dira gauza bera.

Eta literaturak ikusten laguntzen al dizu?

Liburu baten azala ireki orduko beste mundu batean sartzen naiz. Liburu horretako pertsonaia baten azalean sartzen naiz, eta pertsonaia horrek ikusten duen guztia ikusten dut. Begiak banitu bezala. Horrek mundua, nire mundu erreala, ikusten laguntzen dit, eta izugarriko indarra ematen dit. Liburu batek emandako argiak eleberria amaitu eta hurrengo liburu baten azala ireki arte irauten dit. Pertsonaien begietatik, deskribapenetatik... ikusten dut.

Nire eskuak nire begiak dira, eta hatz-mamietatik besoraino eta besotik burmuineraino iristen zaizkit irudiak.

Zein izan da liburu batean aurkitu duzun paisaiarik ederrena?

Bernardo Atxaga da euskal idazleen artean gustukoena dudana.

Oso euskara polita du, sinonimo

asko erabiltzen ditu, eta bere istorioak oso onak dira. *Soinujolearen semea* liburuan agertzen diren paisaiak, Amerikako etxaldea, Obama herria, baserria... oso politak dira. Baina nazioarteko nire idazlerik gogokoena Tolkien da, dudarik gabe. Deskribatzen dituen paisaiak ikaragarriak dira, eta idatzi duen guztia lauzpabost aldiz irakurri dut, ingelesez. Idazle bakoitzaren obrak

bere hizkuntzan irakurtzen saiatzen naiz: norbere hizkuntzak nortasuna du, eta idazlearen hizkuntzan irakurrita hitzak hobeto iristen dira bihotzera. Ken Follet-en *Middle Earth* mundua txundigarria da: izebak mapa bat ere egin zidan liburuiko paisaiekin.

Izeba aipatu duzunez... *Soinujolearen semea* ere berak irakurri zizun, ezta?

Bai, izebak irakurtzen zuen bitartean nik zintan grabatu nuen, eta hamar aldiz irakurri dut. Orain grabatuta dago ONCEn, baina guk aurkeztu zen egunean bertan erosi genuen, eta aurreneko egunean hasi ginen irakurtzen. Gainera, nik presa handia izaten dut irakurtzeko, eta izebak asko grabatu behar izan zuen.

Braille sistema dago, batetik. Autiobooks-ak edo entzuteko liburuak, bestetik. Ez da gauza bera, ezta?

Ez. Zuek bezala, nik ere eskubidea izan behar nuke liburuak neuk irakurtzeko. Zuek, liburu bat entzuten jarri gero lo hartzen duzue, edo galdu egiten zarete... Ba, ni berdin. Nire eskuak nire begiak dira: jendea ez da ohartzen. Badirudi pribilegioa dela braillez irakurri ahal izatea, baina eskubidea behar luke. Eta berdin zait itsuak gutxi bagara, berdin zait euskaraz irakurri nahi dugun itsuak are gutxiago bagara. Nik ere irakurri nahi ditut Arestiren liburu guztiak,

Arazoak

“Oso gogorra da, badakizu egunero arazo berarekin esnatuko zarela. Badakizu janzteko, kalera ateratzeko, erosketak egiteko, lanerako, ikasteko... arazo pila batekin topo egingo duzula egunero. Denok daukagu arazoak, baina nik zuen arazoak eta bat gehiago daukat”.

Koldo Mitxelena-renak, Lizardirenak, Lauaxeta-ren bertsoak... Denak. Eskubidea izan behar nuke liburutegira joan eta nahi ditudan liburuak nire esku izateko.

Zenbat liburu irakur daitezke euskaraz braille hizkuntzan?

Oso gutxi. Abenduan 75 liburu brailera itzultzeko akordioa sinatu zuten ONCEk eta Kultura sailak, baina hori ez da kontua. Kontua da eskubide berbera izan behar genukeela. Guk Durangoko Azoka egiten dugu abenduan. Primeran. Oso ondo. Baina ni? Nirekin nor pentsatzen du? Nik ezin ditut liburu berriak irakurri... Baina ezta orain dela berrogei urtekoak ere!

Eta musika garrantzitsua al da zuretzat?


Oso. Denetik entzuten dut: Ken Zazpi taldearen sentsibilitatea barruraino iristen zait; musika zelta ere oso gogoko dut, talde mitikoak entzuten ditut –U2, Rolling Stones...–, La Oreja de Van Gogh ere gustatzen zait... Musika instrumentuen bilduma ere egiten dut.

Errealaren jarraitzailea ere bazara. Partidetan, nola jabetzen zara zelaian gertatzen denaz?

Normalean irratia entzuten dut, baina zelaiko giroak ere esaten dit zer gertatzen ari den: talde bietako zaletuen erreakzioek, oihuek, kekek... Irratirik gabe ere moldatzen naiz;

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitate: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidedetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian





zaleek beren keinuekin eta portaerarekin gauza asko esaten dizkirate.

Memoriak garrantzi handia al du zuretzat?

Zuentzat adinakoa. Zuek, begiokin ikusten duzuenok, beste zentzumen guztiak erdi-lo dituzue. Ukimena, esaterako. Baina ez eskuetako ukimena bakarrik, azal osokoa baizik. Azal guztiak ukitzen du. Begiekin ikusten dituzuen irudiak, ukimenaren eta sentipenaren bidez iristen zaizkit niri. Zuen irudiak buruan transformatzen dira, eta nireak ere bai. Nik lo dut zentzumen bat; zuek erdi-lo besteak. Esna dauzkadan zentzumenekin hautematen dudan gutzia berdin-berdin gordetzen dut memorian. Prozesua berbera da, nire ustez.

Eta zer esaten dizu pertsonen ahotsak?

Dena, pertsona horren izaera zein den. Baina ez ahotsak bakarrik: keinuak eta mugimenduak ere ikusten ditut, jendeak maiz kontrakoa uste duen arren.

Zein da zuretzat imajinatze edo ulertze konzepturik zailena?

Koloreak, pertsonen fisionomia... Baina ez zaizkit asko inporta. Inportako balitzaizkit ezingo nuke bizi. Esnatu, eta horma bat jotzen dut egunero. Horma hori eskalatu egin behar dut, edo tunel bat egin eta behetik pasa... Nire aurrean ez da aterik irekiko. Inork ez dit aterik egingo. Baina horma horren alde honetan geratzen banaiz ez dut beste aldean dagoen zelaia ikusiko, ez dut eguzki-lorerik ikusiko... Alde honetan hosto ihartuak eta desertua

GALDE SHORTA

- ✓ **Zerk bereizten ditu eguna eta gaua?** Argiak.
- ✓ **Soinurik ederrena?** Mendian egonda, itsasoaren ertzean haizeak esaten dizkidan hitzak.
- ✓ **Eta beldurgarriena?** Otso baten ulua.
- ✓ **Oztopo bat?** Udan neu bakarrik hondartzara joan eta gabarroira igerian iristea.
- ✓ **Irakurri nahi zenukeen liburu bat:** Lauaxetaren edozein bertso-liburu.
- ✓ **Musika talde bat:** Ken Zazpi.
- ✓ **Miresten duzun pertsona itsu bat:** Hellen Keller, Ana Sullivanen ikaslea.
- ✓ **Keinu bat:** benetako besarkada bat.
- ✓ **Ipuin bat:** *Hamelingo txirularia*.
- ✓ **Zapore bat:** Gozoa, kremazko hostopilak, adibidez.

baino ez dago. Orduan, zer egingo dut, hemen gelditu? Ez. Beste aldera joan behar dut. Baina paretak hor jarraitzen du...

Zerk erraztuko luke ate hori zabaltzea?

Gizartearen pentsaera aldatzeak. Lanean, harremanetan, erakundeetan... Amerikarrek egin diote zirrikitu bat paretari. Zertxobait. Orientazio azokak dauzkate, karrera solidarioak, abokatu itsuen erakundeak, idazle itsuenak... Baina horietan parte hartzeko bertako biztanlea izan behar duzu. Nik hemen ez dut etorkizunik ikusten, eta ez itsua naizelako. Espainiako Estatuan itsuen gehiengo zabalak kupoiak saltzen egiten du lan oraindik! New York-eko gobernadore berria, David Paterson, itsua da, eta fiskala eta gobernadore ordeak izan da orain arte. Eta inork ez du zalantzan jarri lan horretarako gai denik! Hori hemen pentsaezina da! Nola iritsi horretara kupoiak saltzera kondentua bazaude?

Zuk zertan egin nahi duzu lan?

Behar balitz 24 orduz egingo nuke lan, baina ez kupoiak saltzen. Niri oso lan duina iruditzen zait, baina ez litzateke aukera bakarra izan behar, besterik ezean egiteko lana baizik. Francok sortu zuen kupoia, Francok sortu zuen ONCE, eta aurrerapen handiak egin dituzte aparailuetan, teknologian... baina ez dute aukerarik ematen, ez dute biderik zabaltzen. Niri euskararekin loturiko lanen bat egitea gustatuko litzaidake, berdin zait zer... Berdin zait, ez baitakit nora jo.

Galduta sentitzen zara?

Marinel irlandar zahar batek kontatu zidan, lehen, itsasoan sextantearekin ibiltzen ziren garaian, ekaitz handien ondoren galduta sentitzen zirela. Ez zekiten itsasoak nora eramane zituen, norantz jo behar zuten... Orduan, iparrizarra bilatu behar zuten. Hark markatuko zien norabidea. Baina erreferentzia puntu bat behar duzu, eta nik ez dut nire iparrizarra aurkitu. ■

<http://www.argia.com/bideoak>
helbidean, elkarrizketaren bideoa.

Gobernuan

“Ezintasunen bat duen norbaitek egon behar luke gobernuan, administrazioan, erakundeetan... Berdin zait gorra, itsua edo elbarria den; baina ezintasunen bat duen norbait. Ezintasunik ez duenak ez du guk adinako sentsibilitaterik geure arazo eta beharrekiko. Eta ez da kritika, logikoa da. Baina horregatik da behar-beharrezkoa gure presentzia toki horietan”.